

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
103/2011	R2/2012	2012/01/31	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Persona juridiko baten zerga-egoitza. Administrazio demandatuak amore ematea. Administrazio sustatzaileak atzera egitea

Ebazpena: R 2/2012

Espedientea: 103/2011

Gasteiz, 2012ko urtarrilaren 31

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomi Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada jauna batzordeburu dela eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese jaunak batzordekide direla, erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Gaia: Bizkaiko Foru Aldundiak 1 ERAKUNDEA (IFZ: (LETRA) ZZZZZZZZ) sozietatearen zerga-egoitzaren inguruan Estatuko Administrazioaren aurrean aurkeztutako gatazka (Arbitraje Batzordearen erregistroa: 103/2011 espedientea).

I. AURREKARIAK

1. Bizkaiko Foru Aldundiak Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordearen 2011ko abenduaren 21ko idazki baten bidez aurkeztu zuen gatazka. Idazkia hil beraren 23an jaso zen. Berarekin batera gatazka aurkezteko erabakia ere aurkeztu zen, Bizkaiko Foru Ogasuneko zuzendari nagusiak aurrean aipatutako egun berean hartua.

Lehenengo idazkian Bizkaiko Foru Ogasuneko Zergak Kudeatzeko zuzendariordearen 2011ko abenduaren 5eko txosten bat aipatzen da; txosten hori idazkiari erantsi zaio. Ondoren bertan azaltzen diren aurrekariak laburbilduko dira:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
103/2011	R2/2012	2012/01/31	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	<i>Pertsona juridiko baten zerga-egoitza. Administrazio demandatuak amore ematea. Administrazio sustatzaileak atzera egitea</i>

- 2009ko urriaren 13an Bizkaiko Foru Ogasuneko Ikuskapen Zuzendariordetzak txostena egin zuen hizpide dugun gaiaz; haren bidez egiaztatu zuen 1 ERAKUNDEAK (IFZ (LETRA) ZZZZZZZZ) –hemendik aurrera "erakundea"– sozietatearen zerga-egoitza MADRILen zegoela. Txosten hori oinarritzat hartuta Foru Ogasunak 2009ko urriaren 28an Zerga Administrazioen Estatuko Agentziari (ZAEA) proposatu zion alda zezala erakundeak adierazitako egoitza, BIZKAIAN baitzegoen.

- 2011ko maiatzaren 19an Bizkaiko Foru Ogasunak berriro ere proposamen horri ekin zion; ZAEAk ezezkoa eman zion 2011ko ekainaren 1eko ofizio baten bidez.

- 2011ko ekainaren 24an Bizkaiko Foru Ogasuneko Ikuskapen Zuzendariordetzak beste txosten bat egin zuen eta sozietatearen zerga-egoitza Madrilen dagoela berretsi zuen.

- 2011ko urriaren 4an Bizkaiko Foru Ogasunak aurreko txosten hori ZAEARI bidali zioen eta berarekin batera 2011ko irailaren 26ko proposamen berria helarazi zion.

- ZAEAk erantzun ez zuenez, 2011ko abenduaren 5ean Bizkaiko Foru Ogasuneko Zergak Kudeatzeko zuzendariordeak txostena egin zuen prozedurarekin aurrera egiteko Ituneko 43. artikuluko seigarren idatz zatian ezarrita dagoen bezala.

Gatazka aurkezteko idazkiaren amaieran Arbitraje Batzordeari eskatu zitzaion adieraz zezala erakundearen zerga-egoitza MADRILEN dagoela 2005eko ekitaldiaz geroztik.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
103/2011	R2/2012	2012/01/31	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Persona juridiko baten zerga-egoitza. Administrazio demandatuak amore ematea. Administrazio sustatzaileak atzera egitea

2. 2012ko urtarrilaren 10ean Arbitraje Batzordeak Bizkaiko Foru Aldundiko Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordearen aurreko eguneko idazkia jaso zen; haren bidez Batzordeari jakinarazi zitzaion “Aldundiak gatazkan atzera egin duela”, eta horretarako aurrekariak eta Zuzenbideko oinarriak azaldu ziren.

Aurrekariak direla eta, idazkiak dio 2011ko abenduaren 30ean Bizkaiko Foru Ogasunak ZAEAREN EAEko Ordezkaritza Bereziko Erakundearen arteko Harremanetarako Bulegoko buruaren berri-ematea jaso zuela eta bertan Agentziak "epeaz kanpo" adierazi zuela ados zegoela Bizkaiko Foru Aldundiaren proposamenarekin, hau da, lehen aipatutako erakundearen zerga-egoitza aldatzearekin. Hori ikusita, Bizkaiko Foru Ogasuneko zuzendari nagusiak 2012ko urtarrilaren 9ean aldaketa horren inguruko gatazkan atzera egitea erabaki zuen. Idazkiarekin batera erabaki horren kopia aurkeztu zen. Idazkiari ZAEAREN berri-ematea ere erantsi zaio (data 2011ko abenduaren 22a da).

Idazkian Zuzenbideko oinarri bat azaldu zen: ZAEA sozietatearen zerga-egoitza zuzentzeko proposamenarekin bat etortzeak “xederik gabe uzten du gatazka; beraz, Bizkaiko Foru Aldundiak atzera egin behar du Arbitraje Batzordearen aurrean aurkeztutako gatazka horretan, nahi zuena prozesutik kanpo lortu baitu”.

Azaldutako guztia dela bide gatazkan atzera egitea onartzeko eskatu zion Batzordeari.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Bizkaiko Foru Aldundiak garaiz eta behar bezala aurkeztu zuen 2011ko abenduaren 23ko gatazka. Epea dela eta, Ekonomi Ituneko 43.Bederatzi artikulua araberako egoitza bat aldatzeko proposamena jasotzen duen

Espedientea	Ebazpena		Ukitutako administrazioak		Kontzeptua
103/2011	R2/2012	2012/01/31	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Persona juridiko baten zerga-egoitza. Administrazio demandatuak amore ematea. Administrazio sustatzaileak atzera egitea

administrazioak bi hileko epealdia dauka ebazpena emateko. Gainera, Ekonomi Ituneko Arbitraje Batzordearen Araudiko (EIABA) 13.1 artikuluan xedatuta dago epealdi horretan administrazioak ados jarri ezean ez dela beharrezkoa inhibitzeko errekerimendua aurkeztea (araudi hori abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onetsi zuen). Egoitzen inguruko hika-miketan halako errekerimendua aurkeztea egoitza aldatzeko beste proposamen bat egitea bezalakoa da. Horrenbestez, EIABAko 13. artikuluko 2. idatz-zatian gatazka aurkezteko ezarritako hilabeteko epealdia aurrean aipatutako bi hileko epealdia amaitutakoan hasten da. Arau horiek aplikatuz gero, kasu honetan bi hileko epealdia, Ekonomi Ituneko 43.Bederatzi artikuluan ezarritakoa, 2011ko urriaren 5ean hasi zen, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiaren azken proposamena jakinarazi eta hurrengo egunean, eta, ondorioz, abenduaren 5ean amaitu zen. Gatazka aurkezteko hilabeteko epealdia hurrengo egunean hasi zen, abenduaren 6an, eta 2012ko urtarrilaren 6an amaitu zen.

Gatazkaren idazkiak EIABAko 13.2 artikuluan ezarritako betekizunak betetzen ditu.

Beraz, gatazka izapidetzea onartu behar da.

2. Hala ere, ZAEAREN 2011ko abenduaren 22ko idazkia, Bizkaiko Foru Aldundiak sozietatearen egoitza aldatzeko proposamenarekin bat datorrela dioena, 2011ko abenduaren 30ean jakinarazi zitzaion Aldundiari (epeaz kanpo, hain zuzen, ordurako agortuta baitzegoen Ekonomi Ituneko 43.Bederatzi artikuluko bi hileko epealdia) eta ondorioz gatazka ezin da bideratu EIABAko 16. artikuluan arautu den bezala. Izan ere, ZAEA proposamenarekin bat etortzeak xederik gabe utzi du gatazkaren *a limine*.

Hori guztia dela eta, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
103/2011	R2/2012	2012/01/31	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	<i>Pertsona juridiko baten zerga-egoitza. Administrazio demandatuak amore ematea.Administrazio sustatzaileak atzera egitea</i>

91.2 artikularekin bat etorriz, bete-betean onartu behar da gatazkan atzera egitea eta prozedura amaitutzat jo behar da. Ez dago zertan ebazpenik eman muinaz.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKI DU:

Bizkaiko Foru Aldundiak gatazka honetan atzera egitea onartu da.